

9.

INKLUSIOA AHALBIDETZEKO PRINTZI- PIO DIDAKTIKOAK



Printzipio didaktikoak eskola-kiroleko saio bakoitzean hartu behar dira kontuan, inklusioa errazteko. Atal honetan, Martin, Carl eta Leh-nertzek 2016an aipatutako batzuk aztertuko ditugu.

1. Osasuna mantentzeko eta indartzeko printzipioa. Kontuan izan behar dugu desGAITASUNEN bat duten ikasleak, askotan, errehabilitazio prozesu paraleloetan daudela, eta edozein lesio edo erorketak berriz gaixotzea eragin dezakeela, ikaslearen erreku-perazioa geldiaraziz. Segurtasuna eta prebentzioa oso garrantzitsuak dira.

2. Indibidualizazioaren printzipioa. Talde baten barruan, ikasle bakoitzak bilakaera desberdina du, eta parte hartzaileari egokitu behar zaio jarduera, eta ez parte hartzailea taldeari.

Agian, printzipio hori da deambulazioa eskatzen duten taldeko saioetan aurrera eramaten zailena, zeren eta, desGAITASUNAREN arabera, batzuetan pertsona batzuek laguntza-elementuak behar baitituzte, eta beste batzuetan ezinezkoa izan baitaiteke; horregatik, beharrezkoa izango da irakaskuntza-estilo bat baino gehiago erabiltzea printzipio hori betetzeko.

3. Motibazio printzipioa. Ezinbestekoa da ikaslea jabetzea lortzen dituen aurrerapenez. Ikasleak dira protagonista nagusia bere erreku-perazioan eta bere forma fisikoaren hobekuntzan, eta badakite bere funtzionaltasuna zenbat eta hobeto egon, orduan eta hobeto sentituko direla; horregatik, oso garrantzitsua da jarduera erakar-garriak proposatzea eta estimulu gisa balioko duen kanpoko feed-back bat ematea.

4. Ikaskuntzaren jarraitasunaren printzipioa. Ikaskuntza bat gerta dadin, estimulu motorra errepikatu egin behar da. Printzipio horrek zereginetara bideratutako ikaskuntzaren jarraibideei segitzen die; izan ere, jarraibide horien arabera, kirol jarduerak garrantzitsuak dira desGAITASUNA duten pertsonen berregokitze eta errehabilitazio funtzionalei begira.

5. Progresio gero eta handiagoaren printzipioak. Ikasle bakoitzak modu batean egingo du aurrera; horregatik, beharrezkoa da monitoreek ezagutzea ikasle bakoitzak dituen gaitasunak, hain zuzen bakoitzaren mailara egokitutako zereginak proposatzeko. Pertsona ororentzat da garrantzitsua ikaskuntza-erronkak, erronka lorgarriak beti ere, eragiten dituzten helburuak planifikatzea, eta suspertze motorrean aurrera egin ahala, zailtasuna handitzea.

6. Espezifikotasun teknikorik ezaren printzipioa. Ikaskuntza eta ikaslearen beharrak gauzatze teknikoaren gainetik daude. Bizipen motorrari eta jarduera egiteari eman behar zaie lehentasuna, teknika egokia erabiltzearen gainetik; izan ere, helburua da pertsonak bere funtzionaltasuna eta parte hartzea hobetzea.

7. Transferentzia printzipioa. Jarduera fisikoak eta kirol jarduerak erabili ohi dira berregokitzeko eta suspertzeko bitarteko gisa, eguneroko bizitzako trebetasunetara zuzenduta (norabide desberdinetan ibiltzea, biratzea, erritmo aldaketak, zentzumenak, objektuak hartzea, askatzea, etab.).